

MUTRIKU / Liburutegia erabiltzen dutenen artean liburuak zozketatuko dira

MUTRIKU. DV. Bihar hasi eta maiatzaren 1a bitartean liburuaren astea 2006 ekimena ospatuko da Udaleko Kultura Sailak antolaturik. Hasteko bihar bertan Mandalak idazteko artea erakustea eta tailerra izango da; erakusketari dagokionez arratsaldeko 6:00etatik 8:00ak bitartean ikus ahal izango da Zabel kultur etxeko erakusketa aretoan, eta tailerra berriz 8 eta 12 urte arteko umeentzat izango da arratsaldeko 5:00etatik 6:00ak bitartean.

Ez dira hor ekitaldiak amaituko, izan ere Yolanda Arrieta idazlearen eskutik literaturaz gozatzen tailerra izango baita umeentzat Zabel kultur etxean, astelehen eta asteartean. Arratsaldeko 5:00etatik 6:00ak bitartean 5 eta 7 urte arteko umeentzat izango da tailerra eta 6:00etatik 7:30etara 8 eta 12 urte artekoentzat. Asteazkenean helduentzako txanda izango da, izan ere las claves del código da Vinci izenburuaz ordubeteko hitzaldia eskainiko baitu Mariano Fernández Urreistik Zabelen arratsaldeko 7:00etatik aurrera. Ostegunean umeentzako ikuskizuna izango da, Amama Pantxikaren altxor ezkutua eskainiko delarik Zabelen baita arratsaldeko 5:00etatik aurrera. Ekimen hauekin batera gogoratu liburutegia erabiltzen dutenen artean liburu sortak zozketatuko dituztela astean zehar.